ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2024ko otsailaren 7a, asteazkena • 16 zk.



## EUSKO JAURLARITZA

### LAN ETA ENPLEGU SAILA

### Arabako Lurralde Ordezkaritza

**Arabako errepideko salgaien garraioaren eta garraio-agentzien industriarako sektore-eraginkortasun mugatuko estatutuz kanpoko hitzarmen kolektiboa**

Ebazpena, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena, salgaien errepideko garraioaren industriarako eta Arabako garraio-agentzietarako estatutuz kanpoko hitzarmen kolektibo eraginkortasun sektoriala 2020-2021-2022-2023-2024-2025-2026 gordailutzea eta argitaratzea xedatzen duena. Hitzarmenaren kodea: 01100085162024.

AURREKARIAK

Lehenengoa. 2024ko urtarrilaren 19an, Euskal Autonomia Erkidegoko Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen eta berdintasun planen Erregistroan sarrera eman zitzaion errepideko salgaien garraioaren industriaren eta Arabako garraio agentzietarako sektoreko 2020-2021-2022-2023-2024-2025-2026 hitzarmen kolektiboa gordailatzeko eskabideari (estatutuz kanpoko eta eraginkortasun mugatuko hitzarmen kolektiboa), dagozkion eredu ofizialetan estatistika- eta identifikazio-datuak jasota. UGT sindikatuak eta Agrupación Empresarial de Transportesek sinatu zuten eskabidea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Eraginkortasun mugatuko eta estatutuz kanpoko hitzarmen kolektiboak ez ditu betetzen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateratua onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuaren. III. tituluan arautzen diren hitzarmenen ezaugarriak. Izan ere, ez du lortu hitzarmen horren negoziaziorako osatutako batzordeko kideen gehiengo absoluturik.

Eraginkortasun mugatuko eta estatutuz kanpoko hitzarmen kolektiboa izateak eragotzi egiten du hitzarmen hori Hitzarmen Kolektiboen eta berdintasun planen Erregistroan sartzea, baina ez du eragozten itun hori 9/2011 Dekretuaren xedapen gehigarriaren arabera gordailatzea (9/2011 Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, EAEko lan-hitzarmen eta -akordioak erregistratzekoa eta gordailatzekoa; 2011eko otsailaren 15a EHAA).

Bigarrena. 2016ko ekainaren 22ko Euskadiko Gizarte Elkarrizketako Mahaiaren akordioa betez, testua eraginkorragoa izateko eta aplikazio zabalagoa izateko, hitzarmena ALHAOn argitaratuko da. Eta hori ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44 artikuluan ezarritakoarekin lotuta, interesdun ezezagun eta helbide jakinik ez duten hainbat pertsonak direlako administrazio-egintza honek hartzaileak.

Horiek horrela, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektibo eta berdintasun planen Erregistroko Arabako lurralde bulegoan gordailatzeko agintzea eta eskatzaileari jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 25a

*Arabako lurralde ordezkaria*
*MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE*

Interesdunek, ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariari, hilabeteko epean, horrela baitago xedatuta 39/2015 Legearen 112., 121. eta 122. artikuluetan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea).

**Merkantziak errepideko garraioaren industriarako eta Arabako agentzietarako hitzarmen kolektiboa 2020-2026, eraginkortasun mugatukoa**

Eraginkortasun mugatuko Arabako salgaien garraiorako hitzarmenaren 1. artikuluaren eranskina.

Hala ere, komeni da azaltzea eraginkortasun mugatuko hitzarmen bat dela, eta legeak honela definitzen duela: langileen eta enpresaburuen artean edo batzuen eta besteen ordezkarien artean sinatutako akordio bat, lan-harremanaren alderdiak arautzen dituena, baina Langileen Estatutuaren hitzarmen kolektibo gisa kalifikatzeko baldintza guztiak betetzen ez dituena, adibidez, sinatzaileen legitimazio nahikoari dagozkionak.

Estatutu-hitzarmenak eraginkortasun arauemaile eta pertsonal orokorra edo “erga omnes” delakoak esleituta dituen bitartean, estatutuz kanpoko hitzarmenak kontratu-eraginkortasun eta eraginkortasun pertsonal mugatua du, eta erakunde sinatzaileek ordezkatzen dituzten edo etorkizunean hitzarmen horri atxikitzen zaizkion langile eta enpresentzat baino ez da izango. Hori dela eta, beren-beregi atxiki behar da hitzarmena aplikatzeko, hitzarmen honen I. eranskina betez.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak

**1. artikulua. Aplikazio-eremua**

Hitzarmen honen xedapenak Arabako Lurralde Historikoan ezarririk dauden enpresa guztientzat dira lotesle, bai eta, bertatik kanpo helbideratuta egon arren, lantokiak Araban dituzten enpresentzat ere; zehazki, enpresa horietara atxikitako langileen ondorioetarako.

**2. artikulua. Eremu funtzionala**

Hitzarmen hau merkantziak errepidez garraiatzen jarduten duten enpresa eta garraio-agentzia guztientzat da lotesle, garraio berezien eta garabien sektorea barne.

Hitzarmenaren eremu funtzionala ondoko hauek osatzen dute: lurreko edozein bidetatik, energia hartzeko errodadura-bide finkorik ez duten ibilgailu automobiletan merkantziak garraiatzen dituzten enpresa-jarduerek, eta lurreko garraioen antolakuntzari buruzko 16/1987 Legeak Merkantzien Garraioaren Laguntzaile eta osagarri gisa ezartzen dituen jarduerek. Ondorioz, biltegiratze-banatze enpresak barnean daude, baita bitartekari-lanak egiten dituzten mezularitza-enpresak ere, baldin eta jarduera horrek garraio-titulua eskatzen badu.

**3. artikulua. Eremu pertsonala**

Hitzarmen honek bere eraginpean dauden enpresetako langile guztiak hartzen ditu (langileak mugatugabeak, behin-behinekoak zein bitartekoak izan); bai horietan dagoeneko lanean ari direnak, bai hitzarmena indarrean den bitartean enpresan lanean hasten direnak.

**4. artikulua. Indarraldia eta amaiera**

Hitzarmen hau 2020ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta 2026ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean edozein izanik ere ofizialki argitaratzen den eguna. Itundutako iraupena amaitutakoan, alderdietatik edozeinek amaiera iragartzen ez badu, hitzarmena urtero luzatuko da.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hitzarmen honen amaiera, gutxienez, hitzarmenaren indarraldia edo urteroko luzapenetatik edozein amaitu baino 2 hilabete lehenago iragarri beharko da. Berariaz hitzartzen da, Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, hitzarmenak indarrean jarraituko duela amaiera iragarri eta hitzartutako iraupena amaitu ostean, harik eta bi alderdiek hori ordeztuko duen beste bat sinatzen duten arte.

**5. artikulua. Xurgatzea eta konpentsatzea**

Hitzarmen honetan itundutako baldintza ekonomikoek osotasun edo batasun zatiezina osatuko dute, eta, aplikazio praktikoari dagokionez, oro har hartuko dira kontuan urteko zenbaketan.

Hitzarmen honetan ezarritako kontzeptu ekonomikoek sektorean dauden guztiak xurgatuko eta konpentsatuko dituzte, hitzarmena indarrean sartzen den unean, edozein direla ere kontzeptu ekonomiko horien izena, izaera eta jatorria.

Hitzarmen honetako kontzeptu ekonomikoetan gertatzen diren hazkundeek, eta aplikazio orokorreko xedapenen ondorioz hitzarmena indarrean den bitartean sortzen edo ezartzen diren kontzeptu berriek eragina izango dute, baldin eta, urteko osotasuna kontuan harturik, hemen itundutako baldintzak gainditzen badituzte. Bestela, xurgatu eta konpentsatu egingo dira, eta hitzarmen honek bere baldintzetan jarraituko du, kontzeptu ekonomikoak ezertan aldatu gabe.

**6. artikulua. Berme pertsonala**

Hitzarmen honetan jasotako baldintza ekonomikoak eta bestelako baldintza guztiak gutxienekotzat joko dira. Hortaz, indarrean dagoen edozein kontratuk, bertako itunen, klausulen zein baldintzen bidez, hitzarmen honetan xedatutakoak baino baldintza onuragarriagoak ezartzen baditu langilearentzat edo langile-taldearentzat (oro har, eta urteko zenbaketan), baldintza haiek gailenduko dira, eta onuradunen berme pertsonal izango dira.

**7. artikulua. Osotasunarekiko lotura**

Hitzarmen honetako klausulek osotasun organiko eta zatiezina osatzen dute, eta ezin dira partzialki aplikatu.

**8. artikulua. Ordezko legedia**

Hitzarmen honetan aurreikusi ez diren alderdietan, merkantziak errepidez garraiatzeko enpresetarako II. Akordio Nagusiak eta ordezko lege-arauek ezarritakoa beteko da. Akordio hori 2012ko martxoaren 13ko Ebazpenaren bitartez onartu zen, eta 2012ko martxoaren 29ko BOEn argitaratu.

**9. artikulua. Hitzarmena interpretatzeko eta zaintzeko batzorde mistoa**

Hitzarmena sinatzen duten alderdiek osatutako batzorde paritario bat eratuko da, gehienez 8 kidekoa: 4, langileen ordezkarien aldetik; eta 4, enpresaren aldetik. Bi alderdietatik edozeinek bilera-deialdia eskatzen badu, gehienez hamabost eguneko epean bildu beharko da batzordea.

Ordezkaritzetatik edozeinetako 1/3ek, emandako eskumenak baliatuta, eskatzen duen guztietan bilduko da batzorde paritarioa. Batzordea biltzeko deialdia bilera baino zazpi egun lehenago egin beharko da, gutxienez. Jakinarazpenarekin batera, beste idazki bat bidaliko da, jorratu behar den gaia adierazten duena. Sindikatu-ordezkaritza bakoitzak, bai eta batzorde paritarioko enpresa-ordezkaritzak ere, gehienez bi aholkulariren laguntza eduki ahal izango du, hitzarekin baina botorik gabe. Edozein kidek izan dezake ordezkoa, batzordeari aldez aurretik jakinarazten badio.

Batzorde paritarioaren erabakiek balioa izan dezaten, ordezkaritza bakoitzaren botoen ehuneko 51k berretsi beharko ditu. Batzorde paritarioan sortzen diren desadostasunak Lan Gatazkak Judizioz Kanpo Konpontzeari buruzko II. Akordioan (PRECO II) arautzen den bitartekaritza-prozeduren arabera ebatziko dira (2000ko apirilaren 4ko EHAA).



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**10. artikulua. Batzordearen eginkizunak**

A) Hitzarmen kolektibo honetako edozein arau interpretatzea.

B) Hitzarmen honek barne hartzen dituen konpromisoak garatzea.

II. kapitulua. Lan-araubidea

**11. artikulua. Lanaldia**

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, 1.727 orduko lanaldia ezartzen da.

Lan egindako ordu eraginkortzat hartzen da langilea ibilgailuaren zerbitzura egotera behartzen duena, hura gidatzen, zaintzen zein mantentze-lanak egiten egon.

**12. artikulua. Lanaldiaren zehaztapena**

Egin beharreko lanaldia lantoki bakoitzean zehaztuko da, eta langileen eta enpresarien artean adostuko dute, urteko lehen bi hilabeteen barruan, dagokion lan-egutegiaren bitartez. Lanaldiaren eta igandeetako atsedenaren inguruko gainerako alderdiei dagokienez, sektoreko indarreko legediak xedatutakoaren arabera jokatuko da.

Merkantzia garraiatzeko agentzietan, lan-ordutegia astelehenetik ostiralera izango da. Enpresak beharra izanez gero, larunbat goizetan ere egin ahalko da lana; betiere, langileen ordezkariei jakinarazi ostean, eta eragindako langileen oniritziarekin.

Enpresak gehienez ere lanaldiaren ehuneko 10 banatu ahal izango du modu irregularrean urtean zehar (172 ordu). Ordu horiek ordu arrunt gisa hartuko dira, eragin guztietarako. Ordu-poltsa hori lanegunetatik kanpo erabili ahal izateko, langilearekin akordioa egitea edo langileen ordezkariekin ituna sinatzea ezinbestekoa izango da. Dena den, banaketa horrek legean aurreikusitako eguneko eta asteko gutxieneko atsedenaldiak errespetatu beharko ditu.

Enpresek aurreko lerrokadan araututako aukera baliatzen badute, idatziz jakinarazi beharko diete eragindako langileei eta langileen ordezkariei, neurria aplikatu baino gutxienez bost egun lehenago. Salbuespen izango dira, hala ere, bezeroak premiazko abisuak edo abisu atzeraezinak egiten dituen kasuak, behar bezala justifikaturik badaude, eta ez badute aipatu aurrerapena betetzen uzten; halakoetan, jakinarazpena ezinbestekoa den aurrerapenarekin egingo da.

Sindikatuetako ordezkariekin lanaldiaren banaketa irregularra itunduta duten enpresetan, ez da aplikatuko artikulu honetan lanaldiaren banaketa irregularraz adierazitakoa.

**13 artikulua. Ogitartekoa**

Hitzarmen hau aplikatzen den garraio-agentzietan, operadore logistikoetan, biltegiratzaile-banatzaileen enpresetan eta subrogatutako enpresetan, lanaldi osoa eta etengabea egiten duten langileek hamaiketakoa hartzeko 20 minutu izateko eskubidea izango dituzte. Atseden-denbora hori lan-denbora eraginkor gisa zenbatuko da. Aurretiaz 20 minutu baino gehiagoko atseden-denbora ezarririk zuten enpresetan, denbora hori errespetatu egingo da, langileen eskubide eskuratua den heinean.

**14. artikulua. Oporrak**

Langileek urtean 32 egun naturaleko oporraldia izango dute. Egun horietatik gutxienez 16 elkarren segidakoak izango dira, eta uztailean, abuztuan edo irailean hartzekoak. Gainerako 16 opor-egunak enpresaren eta langileen ordezkarien arteko adostasunez finkatuko dira.

Ezin izango dira jaiegunetan, jaiegun-bezperetan, larunbatetan edota igandetan hasi.

Oporraldia langilearen aldi baterako ezintasunarekin bat badator eta langileak ezin baditu oporrak dagozkien urte naturalean hartu, ezintasuna amaitu ondoren hartu ahal izango ditu, ezintasuna sorrarazi duen gertakizuna eta igaro den denbora edozein izanda ere. Aldi baterako ezintasuna oporretan gertatzen bada, altaren ostean ekingo zaie berriro oporrei.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Oporretako hartukizunak kalkulatzeko, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (EBJA) 2014ko maiatzaren 22ko eta 2016ko ekainaren 12ko epaietan xedatutakoari eta Auzitegi Gorenaren Lan-Arloko Salaren komunikatuari men egingo zaie; hain zuzen, hauxe ezartzen dute: "urteko oporraldiko ordainsariak ordainsari-kontzeptu arrunt guztiak hartu behar ditu barne, eta apartekoak edo ordainketa bikoitza ekartzen dutenak soilik baztertu daitezke".

**15. artikulua. Aurreabisurako epea**

Enpresan zerbitzuak emateari utzi nahi dioten langileek aurrez abisatu behar dute; horretarako, epe hauek izango dituzte:

* Zuzendaritza-kideek: 30 egun.

* Administrazioko langileek: 15 egun.

* Gainerako langileek: 15 egun.

Adierazitako epeak ez betetzeak jakinarazpena berandutu den egunen ordainsariaren zigor baliokidea ekarriko du.

Zigor hori enpresak langileari kitapen gisa ordaindu behar dizkion kontzeptuetatik kendu ahal izango da.

**16. artikulua. Probaldia**

Probaldiak gehienez hiru hilekoak izango dira langile tekniko eta tituludunentzat, bi hilekoak gidari eta langile kualifikatuentzat, eta hilabetekoak langile ez-kualifikatuentzat.

**17. artikulua Produkzioaren gorabeheren ondoriozko kontratuak**

Langileen Estatutuaren 15.2) artikuluan ezarritakoaren babesean, erabaki da hitzarmen hau sinatzean formalizatzen diren edo indarrean dauden produkzioaren gorabeheren ondoriozko kontratuen gehieneko iraupena aldatzea, nahiz eta enpresaren ohiko jarduera izan. Aurrerantzean, hitzarmen honen aplikazio-eremuan eta lurralde-eremuan salgaien errepideko garraioaren sektorean diharduten enpresek eta lantokiek, gehienez ere, hamabi hilabeteko iraupena jarriko dute kontratu mota hori formalizatzean.

Hitzartutako epea amaitzeagatik kontratua amaitzen denean, zerbitzu-urte bakoitzeko 12 eguneko soldatako diru-konpentsazioa jasotzeko eskubidea izango du langileak; urtebetetik beherako aldiak hilabeteka hainbanatuko dira.

Legeriak edo jurisprudentzia finkatu batek kalte-ordaina kalkulatzeko egunen kopurua handitzen badu, aldaketa hori aplikatuko zaie ukitutako langileei, legea edo jurisprudentzia aldatzen denetik.

**18. artikulua. Aldi baterako laneko enpresak**

Hitzarmen honen eraginpeko enpresek, ABLE enpresen zerbitzuak kontratatzen dituztenean, hitzarmen honetan ezarritako baldintza ekonomiko eta sozialak bermatuko dizkiete haien esanetara jarritako langileei. Betebehar hori espresuki jasoko da aldi baterako laneko enpresak eta enpresa erabiltzaileak sinatzen duten kontratuan.

Hitzarmena ALHAOn argitaratzen denetik aurrera egindako kontratuei aplikatuko zaie artikulu honetan xedatutakoa.

III. kapitulua. Baldintza ekonomikoak

**19. artikulua. Ordainsariak eta kalte-ordainak**

Hitzarmen honetan, ordainsari eta kalte-ordain hauek arautzen dira:

Ordainsariak:

Oinarrizko soldata.

Osagarriak: antzinatasuna eta osagarri pertsonala, hala dagokionean. Errendimendu-saria, aparteko orduak, uztaileko eta Gabonetako haborokinak, mozkinen parte hartzea eta, hala dagokionean, ADR baimena berritzea (Salgai Arriskutzuen Nazioarteko Errepide Garraioari buruzko Europako Akordioa).

Kalte-ordainak:

Dietak.

Urruntasun-plusa.

Gaueko lanaren plusa.

**20. artikulua. Oinarrizko soldata**

Hitzarmenaren oinarrizko soldata lanbide-kategoria bakoitzarentzat ezarritakoa izango da, soldataren eranskinean dagokion zutabean.

**21. artikulua. Errendimendu-saria**

Errendimendu-sariak jarduera arruntari dagozkio, eta lanegunetan zein jaiegunetan eta atseden-egunetan jaso ahalko dira, erantsitako soldata-tauletan adierazitako kopuruetan.

**22. artikulua. Antzinatasuna**

Antzinatasun-saria hitzarmeneko soldata-taulen lehen zutabean (oinarrizko soldata) agertzen diren kopuruei gehiturik ordainduko da.

Aldi baterako laneko enpresen bitartez enpresaren batean lanean emandako denbora kontuan hartuko da antzinatasuna zenbatzeko, betiere lan-harremana argi eta garbi eten ez bada.

Hitzarmen honen aplikazio-eremuan dauden langileek oinarrizko soldataren gaineko ehuneko 5eko igoera izango dute enpresa berean lanean emandako bosturteko bakoitzeko, honako taula honen arabera:

(1994ko urtarrilaren 1etik aurrera kontratatutako langileentzat, I. eranskineko antzinatasun-taulaz lagunduta).

| | |
|---|---|
| Bost urtera | ehuneko 5 |
| 9 urtera | ehuneko 5 |
| 10 urtera | ehuneko 10 |
| 15 urtera | ehuneko 15 |
| 16 urtera | ehuneko 15 |
| 20 urtera | ehuneko 20 |
| 24 urtera | ehuneko 20 |
| 25 urtera | ehuneko 25 |
| 29 urtera | ehuneko 25 |

**23 artikulua. Osagarri pertsonala**

1994ko urtarrilaren 1a baino lehen kontratatutako langileentzat, osagarri pertsonal ez-xurgagarria ezartzen da, 23. artikuluan ezarritakoaren osagarria. Osagarri horren helburua Langileen Estatutuan, sektoreko ordenantzan, azaltzen diren aginduak bateratzea da, eta askotariko hitzarmenen aplikazioa konpentsatzea. Horren emaitza ondoko taula hau da:

| | OSAGARRIA | ANTZINATASUN-GEHIGARRIA GEHI OSAGARRIA |
|---|---|---|
| Bost urtera | ehuneko 5 | ehuneko 10 |
| 9 urtera | ehuneko 15 | ehuneko 20 |
| 10 urtera | ehuneko 10 | ehuneko 20 |
| 15 urtera | ehuneko 10 | ehuneko 25 |
| 16 urtera | ehuneko 15 | ehuneko 30 |
| 20 urtera | ehuneko 20 | ehuneko 40 |
| 24 urtera | ehuneko 30 | ehuneko 50 |
| 25 urtera | ehuneko 25 | ehuneko 50 |
| 29 urtera | ehuneko 35 | ehuneko 60 |

**24. artikulua. Aparteko ordainsariak**

Hitzarmen honetan, aparteko bi ordainsari ezartzen dira: uztailekoa eta gabonetakoa. Ordainsari horien kopurua lanbide-kategoria bakoitzaren soldata-taulan adierazten da, eta, hala dagokionean, antzinatasunari zein osagarri pertsonalari dagokiena gehituko zaie kopuru horiei.

Zenbatekoa ez da aldatuko alde baterako ezintasunen kasuan.

Urtea jada hasita dagoela lanean hasten diren langileei, lan egindakoaren zati proportzionala ordainduko zaie.

Aparteko ordainsarien ordainketa hainbanatzen den enpresetan, langileak ez hainbanatzeko eskubidea izango du; kasu horretan, idatzizko eskaera egin beharko du.

**25. artikulua. Mozkinetan parte hartzea**

Enpresaren mozkinetatik langileari dagokion haborokinaren partea hauxe da: soldata-tauletan finkatutako kopurua gehi antzinatasunari dagokiona, gehi osagarri pertsonalari dagokiona, hala dagokionean.

Zenbatekoa ez da aldatuko alde baterako ezintasunen kasuan.

Zenbateko hori urtea bukatzen denean ordainduko da, baina hilabetetan hainbanatu ahal izango da, enpresak eta langileek hala erabakiz gero.

Urtea jada hasita dagoela lanean hasten diren edo lana uzten duten langileei, lan egindakoaren zati proportzionala ordainduko zaie.

**26. artikulua. Aparteko orduak**

Aparteko orduak ordaintzeko, indarrean dagoen legediak ezarritakoa beteko da, edota langilearen eta enpresaren artean adostutako akordioetan ezarritakoa. Ordu horiek denbora librearekin konpentsatzea lehenetsiko da, langileak nahi badu. Balio ofiziala (antzinatasuna aintzat hartu gabe) soldata-tauletan zehazten da.

Ustekabeko, ezinbesteko edo egiturazko arrazoiak direla-eta (eskaera bereziak, produkzioko puntako denboraldiak, ustekabean norbaitek lanari huts egitea, matxurak, errepide-mozketak, eta antzeko kasuak), aparteko orduak egin beharko dira, ezinezkoa denean eginkizun horietarako langabeak kontratatzea, legez aurreikusitako modalitate ezberdinetan.

Hilero, enpresako zuzendariek egindako aparteko orduak eta arrazoiak jakinaraziko dizkiete langileen ordezkariei. Informazio horren arabera, enpresak eta langileen ordezkariek aparteko orduen izaera eta ezaugarriak zehaztuko dituzte, eta egiturazkotzat hartutakoak Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza Nagusiari bidaliko dizkiote, dagokion hileko kotizazio-buletinekin batera.

**27. artikulua. Dietak**

Dagokion dieta jasotzeko eskubidea daukan langileari 1. eranskinean jasotzen den kopurua ordainduko zaio.

Oharra: dieta nazionaletan, Portugal ere sartzen da.

**28. artikulua. Urruntasun-plusa**

Langile bat lantoki jakin batean kontratatu ondoren enpresa beste udalerri batera aldatzen bada, honela jokatuko da:

— Langilea egoitzaz aldatzen bada, enpresak gauzak lekualdatzeko gastuak ordainduko dizkio.

— Langilearen etxetik enpresaren lantoki berrira joateko bidaia lanaldiarekin bat datozen orduetan garraio publiko erregularrean egin ahal bada, langileari garraio horrek eragindako gastuak ordainduko zaizkio edo garraio-titulua (txartela) emango zaio.

— Langileak bidaia egiteko bere ibilgailu partikularra erabili behar badu, enpresak ukitutako langileekin adosten dituen kopuruak jasoko ditu.

**29. artikulua. Gaueko lanaren plusa**

Gaueko lanaren plusa idatziz edo isilbidez ituntzen ez den kasuetan, oinarrizko soldataren ehuneko 25eko plusa ordainduko zaio langileari, 22:00etatik 6:00etara bitartean lanean emandako ordu bakoitzeko.

**30. artikulua. GGA eta ADR berritzea**

Merkantziak errepidez garraiatzen dituzten enpresentzako II. Akordio Nagusiaren 64. artikuluan (Gidarien trebakuntza) ezarritakoa beteko da; akordio hori 2012ko martxoaren 29ko 76. zenbakidun BOEn argitaratu zen, eta honako hau dio aipatutako artikuluak:

Gidarien gaitasun-agiria (GGA) eta merkantzia arriskutsuak garraiatzeko gidabaimena (ADR) berritzeko trebakuntza-ikastaroak enpresek eskainiko dituzte, beren baliabideekin edo kanpoko zerbitzuak kontratatuz.

Trebakuntzaren kostua enpresek ordainduko dute. Langileek ikastaro horietan emandako denbora Langileen Estatutuaren 23.3 artikuluan (otsailaren 10eko 3/2012 Errege Lege Dekretuak emaniko idazketan) ezarritako ordaindutako baimenaren barruan zenbatuko da.

Merkantzia arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuen gidarientzako azterketak gainditzen ez dituzten langileei eten egingo zaie lan-kontratua, gehienez ere sei hilabetez, eta, epe horretan, aipatutako gidabaimena lortu beharko dute.

IV. kapitulua. Eskubideak eta abar

**31. artikulua. Istripuetarako aseguru-poliza**

Enpresek aseguru-poliza bat kontratatu beharko dute nahitaez, honako arrisku hauek estaltzeko: laneko istripuek langileei eragindako heriotza, ezintasun iraunkor absolutua, ezintasun iraunkor osoa, in itinere gertaturiko lan-istripuak eta lanbide-gaixotasuna. Poliza horiek honako kalte-ordainak bermatu beharko dizkiote erangipeko langileari:

Heriotzagatik, 60.101,21 euro.

Lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako ezintasun iraunkor absolutuagatik edo ezintasun iraunkor osoagatik, 60.101,21 euro.

Langileek poliza horren ehuneko 20 ordainduko dute, eta kopuru hori poliza formalizatu ondoren deskontatuko zaie.

Sinatutako polizaren kopia emango zaie eskatzen duten langileei.

**32. artikulua. Gizarte-segurantzarekiko betebeharrak**

Gizarte-segurantzarekiko betebeharrak, gizarte-segurantzako kuotak eta PFEZa langileak ordaindu beharko ditu, gaiaren inguruko indarreko arauak betez.

**33. artikulua. Baimenak eta lizentziak**

Langilea, aurretik abisatu eta justifikatuta (larrialdi kasuetan, gerora justifikatuta), lanetik atera daiteke, ordaindua izateko eskubidearekin, arrazoi hauetako bat dela medio eta honenbeste denboraz:

a) Langilea ezkontzen bada, 20 egun natural. Lizentzia hori ezin izango dute beste lizentzia batzuek, ezta oporrek ere, xurgatu.

b) Langilearen edo haren ezkontidearen senideren bat (bigarren mailakoa gehienez) ezkontzen bada, 1 egun.

c) Ezkontidea edo seme-alaben bat hiltzen bada, 5 egun natural.

d) Langileak bizilekua aldatzen badu, 1 egun.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

e) Langileak izaera politiko edo pertsonaleko betebehar desenkusaezin bat betetzeko behar duen denbora, Langileen Estatutuan zehazten den bezala.

f) Langileak gidabaimena eta NANa berritzeko ezinbestekoa duen denbora.

g) Langileen ordezkariek ordaindutako gutxienez 17 ordu izango dituzte hilean, funtzio sindikalak edo langileen ordezkaritza-lanak egiteko, Langileen Estatutuetan xedatutako zehaztapen eta baldintzen arabera.

h) Gizarte Segurantzaren sistemako sendagilearen kontsultara joateko ezinbesteko denbora, justifikatuz gero.

i) Lan- eta familia-bizitza bateragarri egitea. Langileek lanaldia murrizteko eskubidea izango dute, 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko.

Lizentzia guztiak langilea ezkonduta egon zein ez emango dira, baina ezinbestekoa izango da epe luzeko harremana dela eta egiatan beste pertsona horrekin bizi dela frogatzea, errolda-agiriaren bidez. Halaber, harremana amaituz gero, hori ere frogatu beharko da.

Baimen berreskuragarria. Urtean 8 orduko baimena ezartzen da norberaren eginbeharretarako, eta berreskuratu ahal izango da. Hartu baino 2 egun baliodun lehenago, gutxienez, eskatu behar da baimena.

**34. artikulua. Prestazio osagarriak, lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen kasuetan**

Lan-istripu larri edo oso larri baten ondorioz langilea aldi baterako ezinduta gelditzen den kasuetan, enpresak soldata osoa (ehuneko 100) ordainduko dio langileari, 210 baja-egunez.

Enpresak ehuneko ehunaren osagarri hori bera ordainduko du lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak arinak direnean, baina soilik hamabosgarren egunetik aurrera, eta gehienez 210 egunez.

Lan-istripu edo bestelako istripu baten ondorioz, edo gaixotasun arrunt baten edo lanbide-gaixotasun baten ondorioz, langilea aldi baterako ezinduta dagoen eta ospitaleratuta dagoen kasuetan, enpresak soldata erreal osoa (ehuneko 100) ordainduko dio langileari ospitaleratzeak irauten duen bitartean, eta gehienez 210 egunez.

Gaixotasun arruntak eragindako aldi baterako ezintasunen gainerako kasuetan, enpresek soldata erreal garbiaren ehuneko 90 osatuko dute, 15. egunetik aurrera eta 90. egunera arte.

**35. artikulua. Enplegu-aniztasuna**

Hitzarmen honi lotutako sektoreko enpresek adostu dute ez dutela langilerik kontratatuko enplegu-aniztasuneko araubidean, lanaldi partzialeko kontratazioak indarrean dirauen bitartean.

**36. artikulua. Sektorera egokitutako osasun-azterketa**

Langileek sektorera egokitutako urteroko osasun-azterketa bat izateko eskubidea edukiko dute; erakunde ofizial eskudunen bidez egingo da, eta lehen hiruhilekoan gauzatzea xede duten kudeaketa egokiak egiteko konpromisoa hartzen dute soilik enpresek.

**37. artikulua. Desgaitasuna duten langileak**

Lan-istripua edo lanbide-gaixotasuna dela-eta ahalmen fisikoak edo intelektualak murriztuta dituzten edo desgaitasuna daukaten langile guztiek lehentasuna izango duten enpresan haien baldintzetarako egokienak diren lanpostuak betetzeko, betiere enpresan lekurik badago eta lanpostu berria betetzeko gaitasuna badute. Langile horiek lanpostu berriari dagokion soldata jasoko dute.

**38. artikulua. Laneko arropa**

Enpresek beharrezko baliabideak eman beharko dizkiete langileei: zehazki, laneko arropa edo lanjantzia, sei hilero; botak eta eskularruak, beharra duten guztietan; eta zira eta arropa iragazgaitza, banatzaileei.

**39. artikulua. Erretiro partziala**

Hitzarmen honen eraginpean dauden langileek, indarrean dagoen legediaren arabera, erretiro partzialeko kontratua eskatzeko eskubidea dute, betiere hori lortzeko legezko eta erregelamenduzko baldintzak betetzen badituzte.

Confebask erakundeak eta ELA, CCOO, UGT eta LAB sindikatuek 1999ko urtarrilaren 15ean izenpetutako Langileen Ordezkapenari eta Berritzeari buruzko Konfederazio Arteko Akordioari atxiki zaizkio hitzarmen hau izenpetu duten alderdiak. Akordio horretan oinarrituta, txanda eta ordezkotza kontratuak bultzatzea erabaki dute alderdiek; nolanahi ere, dagokion langileak aukera izango du erretiro partziala eskatzeko, aipatutako zehaztapenei jarraiki.

**40. artikulua. Ordainketa/kitapena**

Edozein langilek ordainketaren/kitapenaren kopia bat eskatu ahal izango du, hori sinatu baino 48 ordu lehenago, nahi duen erabilera emateko.

**41. artikulua. Erretiroaren haborokina**

Enpresan gutxienez urtebeteko antzinatasuna daukan edozein langileri, behin betiko aurreerretiroa hartzea erabakitzen badu, hurrengo haborokin-eskala aplikatuko zaio, zenbateko eta adin hauekin:

| | 2017-2019 |
|---|---|
| 60 urte | 8 hileko soldata |
| 61 urte | 7 hileko soldata |
| 62 urte | 6 hileko soldata |
| 63 urte | 5 hileko soldata |
| 64 urte | 4 hileko soldata |

Hitzarmen kolektibo hau sinatzen duten erakundeek adierazten dute artikulu honetan aipatzen den sariak edo haborokinak ez duela 1588/1999 Errege Dekretuan jasotzen den «pentsio-konpromiso» izaera, eta, ondorioz, legezko xedapen horretan zehaztutako obligazioetatik kanpo geratzen dela. Horri dagokionez, batzorde paritarioak berariazko ahalmena dauka testua, egoki irizten dion unean, gaiari eragiten dioten legezko edo erregelamenduzko xedapenetara egokitzeko, baita hobekuntza aldatzeko ere, batzordearen iritziz egokiagoa den batekin ordezkatzearren; azken kasu horretarako, batzordekide guztien oniritzia beharko da.

**42. artikulua. Isunak ordaintzea**

Lurreko Garraiobidearen Antolaketa Legean eta dagozkion erregelamenduetan aurreikusitako eta zigortutako arau-hausteen isunak enpresak ordainduko ditu; gainerakoak, berriz (trafikokoak), langile gidariak ordainduko ditu.

**43. artikulua. Gidabaimena kentzea**

Hitzarmen honen eraginpean dauden enpresen kontura edo haren ondorioz egiten den zerbitzua dela-eta gidabaimena 12 hilabete baino gehiagoz eteteak ez du, berez, lan-harremana etetea edo amaitzea eragingo.

Hogei langile baino gehiago dituzten enpresetan, kaltetutako langileak enpresak agintzen dizkion enpresaren ohiko lanak egin beharko ditu, eta langileak denboraldi horretan egiten duen lanaren lanbide-kategoriari eta lanpostuari dagokion soldata jasoko du.

Hogei langile baino gutxiago dituzten enpresetan, lan-kontratua ez da amaituko, baizik eta gehienez ere 12 hilabetez etengo.

Ondorengo hauek ez dute onura hori izango:

a. Gidabaimena ibilgailua lanalditik kanpo erabiliz izandako istripu baten ondorioz galdu duten langileek.

b. Gidabaimena epai irmo bidez deklaraturiko mozkorkeria dela-eta galdu duten langileek.

c. Bi urteko epean berriro gauza bera egiten duten langileek.

Berariaz xedatu ez diren alderdietan, merkantziak garraiatzen dituzten enpresetarako II. Akordio Nagusiaren 54. artikuluan (Gidabaimena) ezarritakoa beteko da. Akordio hori 2012ko martxoaren 29ko BOEn argitaratu zen.

**44. artikulua. Diziplina-araubidea**

Salgaiak Garraiatzeko Enpresetarako II. Akordio Orokorrean, 2012ko martxoaren 29ko BOEn argitaratutakoan, xedatutakoari men egingo zaio.

**45. artikulua. Gorpua lekualdatzea**

Espainiako penintsulako lurraldean gertatutako lan-istripu baten ondorioz langilea hil egiten bada, enpresak ordainduko ditu gorpua hildakoaren Arabako ohiko bizilekura eramateko kostuak, eta, hala dagokionean, erakunde ofizialek (mutualitate patronalak barne) senideei eman diezazkieketen kopuruetatik kenduko ditu.

V. kapitulua. Gidarien funtzioak

**46. artikulua. Estatu-mailako gidariak**

Estatu-mailako garraiora bideratutako ibilgailua gidatzen duten pertsonak dira. Horrez gain, kargaren egokitzapena gidatu behar dute, modu aktiboan berrikusiz.

Normalean gidatzen duten ibilgailua erabilgarri ez dagoenean, beste batekin egingo dituzte banaketak.

**47. artikulua. Eskualde-mailako gidariak**

Eskualde-mailako garraiora bideratutako ibilgailua gidatzen duten pertsonak dira. Ibilgailuaren karga eta deskarga gidatu behar dituzte, eta kargatutako materialaren egokitzapenean modu aktiboan hartu behar dute parte. (46. artikulua).

**48. artikulua. Toki-mailako gidariak**

Toki-mailako garraiora bideratutako ibilgailua gidatzen duten pertsonak dira. Ibilgailuaren kargan eta deskargan zuzenean parte hartu behar dute, eta enpresaren bezeroen merkantzia entregatu eta jaso behar dute.

VI. kapitulua. Beste xedapen batzuk

**49. artikulua. Etengabeko prestakuntza**

Bi alderdiek, hitzarmenaren batzorde paritarioaren bidez, sektorearen premietara egokituko diren prestakuntza-programak diseinatzeko, bultzatzeko eta martxan jartzen laguntzeko konpromisoa hartzen dute.

**50. artikulua. Euskararen sustapena**

Bi alderdiek egokitzat jotzen dute euskara aldezteko eta hedatzeko indarrak biltzea; hori dela eta, adosten da lan-arloko oharrak eta abisuak, ahal den neurrian, euskaraz eta gaztelaniaz idatziko direla.

**51. artikulua. PRECO**

Hitzarmen honen interpretazioarekin lotuta sor daitezkeen desadostasun guztiak (lan gatazkak ebazteko borondatezko prozedurei buruzko lanbide arteko akordioa) PRECOra bideratuko dira, bitartekari, arbitraje eta elkar-ulertze lanak egin ditzan.

**52. artikulua. Mutualitateak**

Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitatea aldatzekotan dauden enpresek, aurretik, langileen ordezkariei jakinarazi beharko diete asmoa, aldaketa horren egokitasunari buruzko argudioak eman ahal izan ditzaten, nahi izatekotan. Nolanahi ere, erabakia enpresako zuzendariek hartuko dute.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**53. artikulua. Enpresa-subrogazioa, kasu jakin batzuetan**

“Merkantzia manipulatzen esklusiboki jarduten duten eta hura kontratatzen duen enpresaren industria-instalazioen barruan (bide publikoetatik ibili gabe) lan egiten duten logistika-enpresetan, baldin eta enpresaren esleipena amaituko balitz eta zeregin horretarako beste enpresa bat azpikontratutako balitz, kontratatzailearen industrialdearen barnean soilik zerbitzuak eskaintzen dituzten logistika-enpresako langileek eskubidea dute kontratuari eusteko. Hala, enpresa berriak subrogatuko lituzke langileen lan-betebeharrak eta –eskubideak”,

Subrogazio hori egin ahal izateko, langileak 6 hilabetetik gorako antzinatasuna eduki behar du.

“Zerbitzuak kontratatzailearen industria-esparrutik kanpo ematen dituzten edo ematen hasten diren langileek aurreko paragrafoan araututako subrogazio-eskubide berbera edukiko dute, azpikontratatutako enpresaren lantokiak enpresa kontratatzailearentzat soilik jarduten duenean”.

**54. artikulua. Hitzarmena ez aplikatzeko klausula**

Hitzarmen hau eta itundutako aurreraeragin-aldia indarrean dauden bitartean, baldintza hauek bete beharko dira enpresek dokumentu honetan hitzartutako lan baldintzak ez aplikatzeko:

Enpresek 15 eguneko kontsulta-aldia zabalduko dute. Enpresaren erabakia eragin duten arrazoiei eta haren ondorioak saihestu edo murrizteko aukerei buruzkoa izango da, baita ukitutako langileentzako ondorioak arintzeko beharrezkoak diren neurriei buruzkoa ere. Halaber, epe berean, hitzarmenaren batzorde paritarioari jakinarazi beharko zaio, langileen legezko ordezkaritzari formulatutako idazkiaren kopia bidaliz.

Kontsultak egiteko aldiak irauten duen bitartean, alderdiek fede onez negoziatu beharko dute, akordioa lortzeko asmoz. Akordioa erdiesteko, enpresa-batzordeko edo -batzordeetako kideen, langileen ordezkarien, hala egokituz gero, edo, egon baleude, sindikatu-ordezkaritzen gehiengoaren adostasuna beharko da; guztien artean, haien guztien gehiengoa ordezkatu beharko dute. Enpresaren eta langileen ordezkaritzaren arteko kontsulta-aldian izandako negoziazioetan adostasuna lortzen ez bada, batzorde paritarioari jakinarazi beharko zaio.

Kontsulta-aldia amaiturik akordiorik ez badago, alderdietako edozeinek hitzarmenaren batzorde paritarioaren esku jarri ahal izango du desadostasuna, bost eguneko epean; batzordeak gehienez ere zazpi egun izango ditu erabakia hartzeko, desadostasuna jakinarazi zaionetik kontatzen hasita.

Batzorde paritarioan akordiorik ez badago, alderdietako edozeinek, desadostasunak ebazteko xedearekin, bost eguneko epean, laneko gatazkak ebazteko borondatezko prozedurei buruzko 2000ko otsailaren 16ko kondeferazio arteko akordiora (PRECO, apirilaren 4ko EHAA) jo ahal izango du. Arbitraje-prozedura soilik aplikatuko da baldin eta alderdi biek erabakitzen badute hari men egingo diotela.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute (Estatutuaren araberako Hitzarmen Kolektiboak ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organoa) ORPRICCEra edo Hitzarmen Kolektiboetarako Aholku Batzorde Nazionalera ez jotzeko, alderdi negoziatzaile bakoitzaren gehiengoak adostuta ez bada.

Xedapen gehigarriak

Lehenengo xedapen gehigarria. Atzerapenak ordaintzea eta erregularizatzea.

Ordainketa eta erregularizazioa hitzarmena argitaratzen denetik 30 eguneko epean egiten da.

Bigarren xedapen gehigarria. Istripu-aseguruen poliza.

Enpresek hilabeteko epea izango dute, hitzarmen hau ALHAOn argitaratzen den unetik aurrera, hitzarmenaren 31. artikuluan hartutako erantzukizuna bermatzeko beharrezko poliza osagarriak kontratatzeko. Enpresek, hortaz, epe hori igaro ostean hartuko dute betebeharra beren gain, eta epe horren ostean gertatutako istripuen arriskuak estaliko dituzte; hau da, betebehar horrek ez du atzeraeraginik izango.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hirugarren xedapen gehigarria. Soldataren igoera.

Honako hau izango da soldata-igoera, indarraldiko urte bakoitzerako:

2020. urtea - 2019ko KPIaren igoera (ehuneko 0,8).

2021. urtea - 2020ko KPI negatiboa ehuneko -0,5) denez, ez dago igoerarik.

2022. urtea - 2021eko KPIaren igoera (ehuneko 6,5).

2023. urtea – 2022ko KPIaren igoera (ehuneko 5,7).

2024. urtea – 2023ko KPIaren igoera.

2025. urtea – 2024ko KPIaren igoera.

2026. urtea – 2025eko KPIaren igoera.

**1. eranskina**

Atxikitze-agiria: salgaien errepideko garraioaren 2020-2026 aldiko eraginkortasun mugatuko Arabako hitzarmenerako.

Agiri honen bidez, nik ……………………………… jaunak/andreak (NAN: ……………………………….), ………………………………. enpresako langilea izanik, honakoa eskatu nahi dut, berariaz eta nire borondatez: salgaien errepideko garraioaren 2020-2026 aldiko eraginkortasun mugatuko Arabako hitzarmenari atxikitzea (Arabako Salgaien Errepideko Garraioaren Arabako Enpresa Elkarteak eta UGT sindikatuak sinatua).

Enpresaren lokaletan, 202……. (e) ko……………………….. aren…………. (e) an.

Langilea – Enpresa



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Salgaien garraioa Araban

2020ko soldata-taulak

| Kategoriak | Oinarrizko soldata | Erredim. Saria | Oporren hilabetea | Aparteko ordainketak | Urteko gordina | Apart. Orden balioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Tailerreko langileak** | | | | | | |
| Taldeburua | 997,65 | 366,87 | 1.364,51 | 1.364,51 | 20.467,72 | 14,52 |
| 1. mailako ofiziala | 928,06 | 337,52 | 1.265,58 | 1.265,58 | 18.983,70 | 13,48 |
| 2. mailako ofiziala | 902,53 | 322,83 | 1.225,37 | 1.225,37 | 18.380,51 | 13,06 |
| Peoi espezializatua | 862,24 | 308,16 | 1.170,40 | 1.170,40 | 17.556,00 | 12,50 |
| Peoi arrunta | 846,44 | 308,16 | 1.154,60 | 1.154,60 | 17.318,99 | 12,50 |
| **Menpeko langileak** | | | | | | |
| Faktura-kobratzailea | 801,64 | 293,47 | 1.095,11 | 1.095,11 | 16.426,60 | 11,70 |
| Telefonista | 704,93 | 264,14 | 969,07 | 969,07 | 14.536,11 | 10,39 |
| Atezaina | 773,98 | 293,47 | 1.067,45 | 1.067,45 | 16.011,70 | 11,40 |
| Gaueko jagolea | 814,42 | 293,47 | 1.107,89 | 1.107,89 | 16.618,35 | 11,80 |
| Eguneko jagolea | 801,64 | 293,47 | 1.095,11 | 1.095,11 | 16.426,60 | 11,70 |
| Mandataria | 704,93 | 264,14 | 969,07 | 969,07 | 14.536,11 | 10,63 |
| **Goi mailako teknikariak** | | | | | | |
| Ikuskari prof. zerbitzuburua | 1.189,24 | 425,56 | 1.614,80 | 1.614,80 | 24.221,94 | 17,08 |
| Ingeniari lizentziadunak | 1.151,77 | 411,31 | 1.563,08 | 1.563,08 | 23.446,16 | 16,57 |
| Laguntzaile tekn. - Ingeniari tekn. | 1.030,78 | 366,86 | 1.397,64 | 1.397,64 | 20.964,54 | 14,84 |
| Osasun-laguntzaile teknikoa | 958,95 | 337,52 | 1.296,48 | 1.296,48 | 19.447,15 | 13,82 |
| **Administrazioko langileak** | | | | | | |
| Sekzio-burua | 1.110,14 | 381,52 | 1.491,66 | 1.491,66 | 22.374,89 | 15,86 |
| Bulegoko burua | 1.066,26 | 366,87 | 1.433,12 | 1.433,12 | 21.496,87 | 15,24 |
| 1. mailako ofiziala | 994,51 | 337,49 | 1.332,00 | 1.332,00 | 19.979,98 | 14,18 |
| 2. mailako ofiziala | 955,87 | 322,83 | 1.278,71 | 1.278,71 | 19.180,58 | 13,63 |
| Laguntzailea | 870,41 | 293,47 | 1.163,88 | 1.163,88 | 17.458,22 | 12,45 |
| **Garraio agentziako langileak** | | | | | | |
| Arduradun nagusia | 1.066,26 | 366,88 | 1.433,14 | 1.433,14 | 21.497,03 | 15,25 |
| Biltegiko arduraduna | 1.035,13 | 352,20 | 1.387,33 | 1.387,33 | 20.809,94 | 14,78 |
| Langilezaina | 983,82 | 337,53 | 1.321,35 | 1.321,35 | 19.820,26 | 14,08 |
| Biltegiko eta baskulako laguntzailea | 912,22 | 308,16 | 1.220,38 | 1.220,38 | 18.305,69 | 13,06 |
| Morroi espezializatua | 912,22 | 308,16 | 1.220,38 | 1.220,38 | 18.305,69 | 13,06 |
| **Salgaien garraioko langileak** | | | | | | |
| 1. mailako trafiko-burua | 1.020,15 | 366,88 | 1.387,03 | 1.387,03 | 20.805,48 | 14,75 |
| 2. mailako trafiko-burua | 987,91 | 352,20 | 1.340,11 | 1.340,11 | 20.101,71 | 14,26 |
| 3. mailako trafiko-burua | 948,47 | 337,53 | 1.286,01 | 1.286,01 | 19.290,08 | 13,71 |
| Estatu mailako gidaria | 1,001,74 | 366,88 | 1.368,62 | 1.368,62 | 20.529,32 | 14,57 |
| Eskualde mailako gidaria | 977,66 | 352,20 | 1.329,86 | 1.329,86 | 19.947,94 | 14,15 |
| Herri mailako gidaria | 974,24 | 337,53 | 1.311,77 | 1.311,77 | 19.676,57 | 14,00 |
| Furgoneta-gidaria | 908,80 | 308,16 | 1.216,95 | 1.216,95 | 18.254,32 | 13,00 |
| Gidari laguntzailea | 896,41 | 308,16 | 1.204,57 | 1.204,57 | 18.068,51 | 12,87 |
| Zamaketaria | 896,41 | 308,16 | 1.204,57 | 1.204,57 | 18.068,51 | 12,87 |

| 2020 Dietak | | | |
|---|---|---|---|
| Dieta nazionalak | | Atzerriko dietak | |
| Bazkaria | 15,43 | Bazkaria | 19,30 |
| Afaria | 14,38 | Afaria | 17,90 |
| Ohea | 15,43 | Ohea eta gosaria | 27,62 |
| Hamaiketakoa | 6,65 | | |
| Guztira | 51,88 | Guztira | 64,82 |

| | 2020. urteko antzinatasuneko soldata-taula, 1994ko urtarrilaren 1aren ondoren kontratatua | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kategoria | 5 urteak | 9 urteak | 10 urteak | 15 urteak | 16 urteak | 20 urteak | 24 urteak | 25 urteak | 29 urteak |
| Tailerreko langileak | Taldeburua | 49,88 | 49,88 | 99,76 | 149,64 | 149,64 | 199,53 | 199,53 | 249,40 | 249,40 |
| | 1. mailako ofiziala | 46,40 | 46,40 | 92,80 | 135,39 | 135,39 | 185,62 | 185,62 | 232,01 | 232,01 |
| | 2. mailako ofiziala | 45,12 | 45,12 | 90,25 | 135,39 | 135,39 | 180,51 | 180,51 | 225,64 | 225,64 |
| | Peoi espezializatua | 43,11 | 43,11 | 86,22 | 129,34 | 129,34 | 172,45 | 172,45 | 215,57 | 215,57 |
| | Peoi arrunta | 42,33 | 42,33 | 84,64 | 126,97 | 126,97 | 169,29 | 169,29 | 211,62 | 211,62 |
| Menpeko langileak | Faktura-kobratzailea | 40,08 | 40,08 | 80,16 | 120,25 | 120,25 | 160,34 | 160,34 | 200,42 | 200,42 |
| | Telefonista | 35,25 | 35,25 | 70,49 | 105,74 | 105,74 | 140,99 | 140,99 | 176,24 | 176,24 |
| | Atezaina | 38,71 | 38,71 | 77,40 | 116,11 | 116,11 | 154,79 | 154,79 | 193,50 | 193,50 |
| | Gaueko jagolea | 40,72 | 40,72 | 81,44 | 122,17 | 122,17 | 162,89 | 162,89 | 203,61 | 203,61 |
| | Eguneko jagolea | 40,08 | 40,08 | 80,16 | 120,25 | 120,25 | 160,34 | 160,34 | 200,42 | 200,42 |
| | Mandataria | 35,25 | 35,25 | 70,49 | 105,74 | 105,74 | 140,99 | 140,99 | 176,24 | 176,24 |
| Goi mailako teknikariak | Ikuskari prof. zerbitzuburua | 59,46 | 59,46 | 118,92 | 178,39 | 178,39 | 237,86 | 237,86 | 297,32 | 297,32 |
| | Ingeniari lizentziadunak | 57,59 | 57,59 | 115,18 | 172,76 | 172,76 | 230,35 | 230,35 | 287,96 | 287,96 |
| | Laguntzaile tekn. - Ingeniari tekn. | 51,55 | 51,55 | 103,08 | 154,62 | 154,62 | 206,16 | 206,16 | 257,70 | 257,70 |
| | Osasun-laguntzaile teknikoa | 47,96 | 47,96 | 95,90 | 143,85 | 143,85 | 191,79 | 191,79 | 239,75 | 239,75 |
| Administrazioko langileak | Sekzio-burua | 55,50 | 55,50 | 110,99 | 166,52 | 166,52 | 222,03 | 222,03 | 277,53 | 277,53 |
| | Bulegoko burua | 53,32 | 53,32 | 106,63 | 159,94 | 159,94 | 213,26 | 213,26 | 266,58 | 266,58 |
| | 1. mailako ofiziala | 49,73 | 49,73 | 99,44 | 149,17 | 149,17 | 198,90 | 198,90 | 248,61 | 248,61 |
| | 2. mailako ofiziala | 47,80 | 47,80 | 95,59 | 143,38 | 143,38 | 191,17 | 191,17 | 238,97 | 238,97 |
| | Laguntzailea | 43,52 | 43,52 | 87,04 | 130,56 | 130,56 | 174,09 | 174,09 | 217,60 | 217,60 |
| Garraio agentziako langileak | Arduradun nagusia | 53,32 | 53,32 | 106,63 | 159,94 | 159,94 | 213,26 | 213,26 | 266,58 | 266,58 |
| | Biltegiko arduraduna | 51,76 | 51,76 | 103,52 | 155,27 | 155,27 | 207,03 | 207,03 | 258,79 | 258,79 |
| | Langilezaina | 49,18 | 49,18 | 98,39 | 147,57 | 147,57 | 196,77 | 196,77 | 245,96 | 245,96 |
| | Biltegiko eta baskulako laguntzailea | 45,60 | 45,60 | 91,23 | 136,84 | 136,84 | 182,44 | 182,44 | 228,07 | 228,07 |
| | Morroi espezializatua | 45,60 | 45,60 | 91,23 | 136,84 | 136,84 | 182,44 | 182,44 | 228,07 | 228,07 |
| Salgaien garraioko langileak | 1. mailako trafiko-burua | 51,00 | 51,00 | 102,02 | 153,02 | 153,02 | 204,04 | 204,04 | 255,04 | 255,04 |
| | 2. mailako trafiko-burua | 49,39 | 49,39 | 98,79 | 158,65 | 158,65 | 197,59 | 197,59 | 246,98 | 246,98 |
| | 3. mailako trafiko-burua | 47,42 | 47,42 | 94,85 | 142,27 | 142,27 | 189,70 | 189,70 | 237,12 | 237,12 |
| | Estatu mailako gidaria | 50,09 | 50,09 | 100,18 | 150,26 | 150,26 | 200,35 | 200,35 | 250,44 | 250,44 |
| | Eskualde mailako gidaria | 48,88 | 48,88 | 97,77 | 146,65 | 146,65 | 195,54 | 195,54 | 244,42 | 244,42 |
| | Herri mailako gidaria | 48,71 | 48,71 | 97,42 | 146,14 | 146,14 | 194,86 | 194,86 | 243,56 | 243,56 |
| | Furgoneta-gidaria | 45,45 | 45,45 | 90,88 | 136,32 | 136,32 | 181,76 | 181,76 | 227,21 | 227,21 |
| | Gidari laguntzailea | 44,83 | 44,83 | 89,65 | 134,47 | 134,47 | 179,28 | 179,28 | 224,11 | 224,11 |
| | Zamaketaria | 44,83 | 44,83 | 89,65 | 134,47 | 134,47 | 179,28 | 179,28 | 224,11 | 224,11 |


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| | 2020. urteko antzinatasunaren soldata taula, osagarriarekin | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kategoriak | 5 urteak | 9 urteak | 10 urteak | 15 urteak | 16 urteak | 20 urteak | 24 urteak | 25 urteak | 29 urteak |
| Tailerreko langileak | Taldeburua | 99,77 | 199,53 | 199,53 | 249,41 | 299,29 | 309,89 | 387,36 | 387,36 | 464,83 |
| | 1. mailako ofiziala | 92,80 | 185,62 | 185,62 | 232,01 | 278,41 | 288,27 | 360,34 | 360,34 | 432,41 |
| | 2. mailako ofiziala | 90,25 | 180,51 | 180,51 | 225,64 | 270,76 | 280,34 | 350,43 | 350,43 | 420,51 |
| | Peoi espezializatua | 86,22 | 172,45 | 172,45 | 215,56 | 258,67 | 267,82 | 334,78 | 334,78 | 401,73 |
| | Peoi arrunta | 84,64 | 169,29 | 169,29 | 211,62 | 253,94 | 262,92 | 328,65 | 328,65 | 394,38 |
| Menpeko langileak | Faktura-kobratzailea | 80,16 | 160,33 | 160,33 | 200,42 | 240,49 | 249,00 | 311,26 | 311,26 | 373,51 |
| | Telefonista | 70,49 | 140,99 | 140,99 | 176,23 | 211,48 | 218,96 | 273,70 | 273,70 | 328,44 |
| | Atezaina | 77,40 | 154,79 | 154,79 | 193,50 | 232,20 | 240,41 | 300,52 | 300,52 | 360,62 |
| | Gaueko jagolea | 81,44 | 162,88 | 162,88 | 203,61 | 244,32 | 252,98 | 316,22 | 316,22 | 379,46 |
| | Eguneko jagolea | 80,16 | 160,33 | 160,33 | 200,42 | 240,49 | 249,00 | 311,26 | 311,26 | 373,51 |
| | Mandataria | 70,49 | 140,99 | 140,99 | 176,23 | 211,48 | 218,96 | 273,70 | 273,70 | 328,44 |
| Goi mailako teknikariak | Ikuskari prof. zerbitzuburua | 118,92 | 237,86 | 237,86 | 297,31 | 356,77 | 369,39 | 461,74 | 461,74 | 554,09 |
| | Ingeniari lizentziadunak | 115,18 | 230,35 | 230,35 | 287,95 | 345,54 | 357,76 | 447,20 | 447,20 | 536,64 |
| | Laguntzaile tekn. - Ingeniari tekn. | 103,08 | 206,16 | 206,16 | 257,69 | 309,24 | 320,18 | 400,23 | 400,23 | 480,27 |
| | Osasun-laguntzaile teknikoa | 95,90 | 191,79 | 191,79 | 239,74 | 287,69 | 297,87 | 372,34 | 372,34 | 446,80 |
| Administrazioko langileak | Sekzio-burua | 111,01 | 222,03 | 222,03 | 278,20 | 333,04 | 344,82 | 431,03 | 431,03 | 517,24 |
| | Bulegoko burua | 106,63 | 213,25 | 213,25 | 266,57 | 319,88 | 331,20 | 414,00 | 414,00 | 496,80 |
| | 1. mailako ofiziala | 99,44 | 198,90 | 198,90 | 248,60 | 298,33 | 308,89 | 386,11 | 386,11 | 463,33 |
| | 2. mailako ofiziala | 95,59 | 191,17 | 191,17 | 238,97 | 286,77 | 296,91 | 371,14 | 371,14 | 445,36 |
| | Laguntzailea | 87,04 | 174,08 | 174,08 | 217,60 | 261,12 | 270,37 | 337,96 | 337,96 | 405,55 |
| Garraio agentziako langileak | Arduradun nagusia | 106,63 | 213,25 | 213,25 | 266,57 | 319,88 | 331,20 | 414,00 | 414,00 | 496,80 |
| | Biltegiko arduraduna | 103,52 | 207,03 | 207,03 | 258,78 | 310,54 | 321,53 | 401,91 | 401,91 | 482,29 |
| | Langilezaina | 98,39 | 196,76 | 196,76 | 245,96 | 295,14 | 305,59 | 381,99 | 381,99 | 458,38 |
| | Biltegiko eta baskulako laguntzailea | 91,23 | 182,44 | 182,44 | 228,06 | 273,67 | 283,35 | 354,19 | 354,19 | 425,02 |
| | Morroi espezializatua | 91,23 | 182,44 | 182,44 | 228,06 | 273,67 | 283,35 | 354,19 | 354,19 | 425,02 |
| Salgaien garraioko langileak | 1. mailako trafiko-burua | 102,02 | 204,04 | 204,04 | 255,04 | 306,05 | 316,87 | 396,09 | 396,09 | 475,31 |
| | 2. mailako trafiko-burua | 98,79 | 197,58 | 197,58 | 246,98 | 296,37 | 306,86 | 383,57 | 383,57 | 460,29 |
| | 3. mailako trafiko-burua | 94,85 | 189,70 | 189,70 | 237,12 | 284,54 | 294,61 | 368,26 | 368,26 | 441,92 |
| | Estatu mailako gidaria | 100,18 | 200,34 | 200,34 | 250,44 | 300,53 | 311,15 | 388,94 | 388,94 | 466,73 |
| | Eskualde mailako gidaria | 97,77 | 195,54 | 195,54 | 244,42 | 293,30 | 303,68 | 379,60 | 379,60 | 455,52 |
| | Herri mailako gidaria | 97,42 | 194,85 | 194,85 | 243,55 | 292,27 | 302,61 | 378,27 | 378,27 | 453,92 |
| | Furgoneta-gidaria | 90,88 | 181,76 | 181,76 | 227,20 | 272,65 | 282,29 | 352,86 | 352,86 | 423,43 |
